

**DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK, TXONTA AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINEN BIRGAITZE ERAGINKORRERAKO JABE ERKIDEGOEI BANAKAKO EBALUAZIO ARAUBIDEZ EMANGO ZAIZKIEN DIRU-LAGUNTZETARAKO.**

**1. Araudi erregulatzaila.**

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak emateko araubidea hauxe da:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Eibarko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrak 2012ko azaroaren 29an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko *GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIA*lean argitara eman zena.
- Diru-laguntza hau arautzen duten oinarriak, deialdi honetan bertan jasota daudenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak 2017ko azaroaren 28an hartutako erabakia, Eibarko Udalarari diru-laguntza zuzen bat ematen ziona, Eibarko udalerriko Txonta auzoan eraikinak birgaitzeko eta hiri izaerako berroneratze-jarduketak finantzatzeko.

**2. Diru-laguntzaren xedea.**

Oinarrion helburua da Eibarko Txonta auzoko bizitegi-eraikin hauen birgaitze integralerako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea:

Txonta kaleko 02, 03, 05, 15, 17, 25, 27, 29, 36, 38, 40, 42, 44, 46, 48, 50 eta 52 zenbakiak.

**3. Diru-laguntza zein aurrekontu-kredituri egozten zaion eta, eskuragarri diren kredituen barruan, deialdi honetako gehieneko diru-laguntzen zenbateko osoa, edo, hori ezean, diru-laguntzen kopuru zenbatetsia.**

Diru-laguntza horiek finantzatzeko Udalak 1.900.000 euroko diru-ekarpena egingo du hiru urte hauetan: 2018, 2019 eta 2020an. Hona hemen urte bakoitzeko gehieneko diru-ekarpena:

Urtea	Urteko gehieneko zenbatekoa (*)	Partida
2018	400.000 €	1.0200.780.04.152.20
2019	1.000.000€	
2020	500.000 €	

Aurrekontu-kreditua agortu delako eskabideak erantzuteke geratuz gero, organo eskudunak hala erabakiz gero, diru-laguntzok egotzi zaizkion aurrekontuaren partida handitu egin daiteke ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko.

**4. Aintzat hartzen diren birgaitze eraginkorreko jarduketak.**

Deialdi honen ondorioetarako, “birgaitze eraginkortzat” ondoren aipatuko diren jarduketa hauek guztiak hartzen dira, hauetako batzuk laguntzak jaso ditzaketenak izanik:

- a) Egituraren eta eraikuntzaren aldetik egokituta ez dauden eraikinetan ezinbestean egingo dira Eraikinaren Ikuskapen Teknikoak eskatu eta gomendatzen dituen esku-hartzeak, teknikari eskudun batek eredu ofizialen arabera idatzitakoa; Euskadi Autonomia Erkidegoko 3/2015 Etxebizitzaren Legearen 52. artikulua egitera behartzen duena.
- b) Etxebizitzek ez badituzte betetzen beharrezko bizigarritasun-baldintzak, 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. Eranskinak eta Eraikuntza Antolamenduaren Legeko 3. artikulua aipatzen dituztenak, eraikinari eskatuko zaio bizigarritasun-egokiera hori lortzeko aukera bermatuko duten antolamendu espaziala eta eraikuntza-ezaugarri batzuk izatea.
- c) Igogailuak jartzea, arrapalak egitea eta etxebizitzaren irisgarritasun unibertuala bermatzeko balio duen beste edozein obra egitea, desnibelak edo koskak gainditzeko harmailak jarri beharrik ez izateko.
- d) Eraikinaren inguratzaile osoa (fatxadak, teilatua, hegalak...) hobetzeko esku-hartzea, eraikinak hasieran zuen Kalifikazio Energetiko hura, letra batean gutxienez, hobetuko duten jarduketak eginda; horretarako, karbono-dioxidoaren emisioak neurtuko dira ( $\text{CO}_2/\text{m}^2$  urteko) indarreko efizientzia energetikoaren ziurtapena egiteko prozeduraren arabera.

Kalifikazio energetikoren hobekuntza hori jarduketa-tipologia bat eginez edo tipologia batzuk konbinatuta lor daiteke; baita jarduketa baten edo hainbat jarduketan neurri partzialak eginez.

Eraikinaren energia-ziurtapena apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera egingo da, eraikinaren efizientzia energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena, horretarako, aitortutako programa informatiko ofizial horietako bat erabilita. Jarduketa hautagarri bakarrak eraikuntzaren inguratzaile termikoaren itxitura batean edo batzuetan (fatxadak, teilatua edo estalkia, baoak...) egindako jarduketa integralak izango dira, baina ez eraikin bateko etxebizitza edo lokal batean edo batzuetan banaka hartuta egiten direnak.

Egindako ekintzen eta obren eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko, diru-laguntza eskaera egiten den unetik bertatik (obrak egiten hasi aurretik) monitorizatu egin behar da etxebizitzaren % 10, eta obrak amaitu ondoren ere, beste urte bitan horrela jarraitu. Sistemak ustiatzen eta martxan dauden bitartean, datuak neurtzeko behar diren ekipoak Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laboratorioaren Termika Arloko zerbitzu teknikoek adierazitakoak izango dira. Ekipoak, behin instalatuta, ekipatuta egon behar dira datu-irakurketa Eraikuntzaren Kalitatearen Kontrolerako laborategira bidaltzeko, hark datuok tratatu eta ustia ditzan.

Ekipamendu eta jarraipen horren kostua, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen barruan dago sartuta.

- e) Eraikinen instalazioak araudira egokitzea eta eguneratzea: saneamendua, ur-hornidura, argindarra, telekomunikazioak, gasa eta suteen kontrako segurtasuna.

Borondatezkoak izango dira —beraz, Jabe Erkidegoek erabaki beharko dute— energia primarioko kontsumoa murrizteko ondoko jarduketak hauek:

- Etxeetan dauden galdarak kendu eta errendimendu handiko gas naturaleko galdarak jartzea
- Etxeko ur beroa sortzeko sistema bat jartzea eguzki-panel termikoen bidez.
- Berokuntza-sistema eta etxeko ur bero zentralizatua izateko biomasa-galdara jartzea, edo energia berriztagarriko beste sistemaren bat, etxe bakoitzak kontsumitzen duena kontrolatzeko banaketa-sistemarekin.

Jarduketa hauek diruz laguntzekoak izango dira, deialdi honetako “Diru-laguntzen zenbatekoa” atalean (14) adierazi bezala.

Bestalde, 2017an edo 2018an egin eta amaitutako jarduketak ere diruz lagunduko dira aurreko atal horietan deskribatutako esku-hartzeren bat edo esku-hartzeren batzuk egin badira; betiere erkidegoek edo komunitateek jarduketak osatzen badituzte eraikinaren birgaitze osoa lortzeraino diru-laguntza programa honen indarraldian, horretarako, goian aipatutako a), b), c), d) eta e) letretan adierazitako esku-hartze guztiak eginga.

Edozein kasutan ere, birgaitzeko esku-hartzeak aplikatzekoak diren hirigintza-planen xedapenetara doitu behar dira, eta dagozkien administrazio-baimenak eduki behar dituzte.

Lehendik eginga daude jarduketak ez direnean, komunitateek birgaitze integralaren obra-zuzendaritzaz eta proiektuaz arduratuko den talde teknikoa kontratatu baino lehen, lehiaketa bat egingo da, hiru lizitatzailerekin gutxienez. Talde teknikoaren hautaketa, batzorde baten eskuetan geratuko da. Honela osatuko da: Udaleko ordezkari bat; Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren ordezkari bat, eta Jabeen Komunitateko ordezkari bat.

Enpresa adjudikazioduna kontratu aurretik lehiaketa bat egingo da, hiru lizitatzailerekin gutxienez. Enpresaren hautaketa, batzorde baten eskuetan geratuko da. Honela osatuko da batzorde hori: Udaleko ordezkari bat; Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren ordezkari bat, eta Jabeen Komunitateko ordezkari bat.

## **5. Diru-laguntza emateko araubidea**

Zuzeneko emakidaren araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez emango da diru-laguntza.

## **6. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.**

Diru-laguntza hauek jaso ahal ditzakete "Diru-laguntzaren helburua" deritzon bigarren atalean aipatutako eraikinetako Jabeen Komunitateek, betiere Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako ezein debekuk haiengan eraginik ez badu.

## **7. Diru-laguntzaren zenbatekoa itzultzea higiezin bizien artean eskualdatzen den kasuetan**

Emandako diru-laguntzak itzuli egingo direla bermatzeko eta birgaitze-proiektuaren garapenean ekintza publikoak sortu dituen gainbalioetan Administrazioaren parte-hartzea bermatzeko, jasotako diru-laguntza itzultzeko beharra ezartzen da etxebizitzak edo diruz lagundutako eraikinaren parte diren higiezinetakako elementuak bizien artean eskualdaketzen direnean.

Haiek birgaitzeko diru-laguntzen xede diren higiezinak ezingo dira bizien artean eskualdatu 10 urteko epean obraren amaiera-egiaztapenetik, eskualdatzaileak aurretik ez badu egiaztatzen itzuli egin dituela eskualdaketa xede den elementuari egotz dakizkiokeen laguntzak; laguntza horiek itzultzeko unean "Itzultzeko oinarritzko taula"n jasotako portzentajeen arabera eguneratuta.

Orobat, eta aurretik aipatutako helburuetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa haren titular-kideetako bati adjudikatzen bazaio, ezkontza-banantzeen edo dibortzioen, edo egitatezko bikote-haustearen edo bizikidetzako batasun-haustearen ondorioa bada, lehen graduko odolkidetasunaren bidez elkartutako kideen kasuetan.

Etxebizitzetako eta lokaletako titularrek jasotako diru-laguntzari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokien Jabetza Erregistroan, eta bertan egingo da —administrazio-dokumentu horren aurrean— legedi hipotekarioaren arabera dagokion jabariaren mugatze xedatzailearen erregistro-idazpena.

Diru-itzulketa hori obrak egiten ari direla sor daitezkeen bizien arteko eskualdaketen kasuan ere gauzatu beharko da, baina bakarrik beren ohiko bizileku iraunkor ez diren etxebizitzaren titularrak direnean, edo norbere konturako jarduerari atxikita ez dauden lokalak direnean. Gainerako kasuetan, titular berria aurreko titularraren tokian subrogatuko da epe osoa bete arte geratzen den denbora-tarte horretan.

Jasotako diru-laguntza irizpide hauen arabera itzuliko da:

- Etxebizitzetako pertsona juridiko titularrek eta norbere konturako jarduerari atxikita ez dauden lokaletako pertsona juridiko titularrek jasotako diru-laguntzari buruzko ziurtagiriak duen balioaren % 100 itzuli beharko dute, laguntza hori proiektua egitean gauzatzen bada (laguntza emateko ebazpenaren ondoren) nahiz obra-amaierako ziurtagiria eman eta hurrengo hamar urteetan ematen bada.

- Etxebizitzen eta lokalen gainontzeko titularrek, bizien arteko eskualdaketa kasuetan, "Diru-itzulera oinarritzeko taula" honetan adierazitako portzentajea itzuli behar dute, hau da, jasotako diru-laguntzari buruzko ziurtagiriak duen balioaren portzentajea:

**Diru-itzulkerarako oinarritzeko taula:**

ESKUALDAKETAREN DATA	ITZULERA-PORTZENTAJEA
Obra egitean edo lehen urtean	100
Bigarren urtean	91
Hirugarren urtean	82
Laugarren urtean	73
Bosgarren urtean	63
Seigarren urtean	53
Zazpigarren urtean	43
Zortzigarren urtean	33
Bederatzigarren urtean	22
Hamargarren urtean	11
Hamargarren urtetik aurrera	0

Itzuli behar den zenbatekoa zehaztuko da Jabeen Erkidegoari emandako laguntza oinarritzat hartuta; beraz, eskualdaketa-xede den elementuak komunitatean duen parte-hartze kuota eta igarotako denborari buruz taulan adierazitako portzentajea aplikatuko zaio erkidegoari edo komunitateari.

Itzuliko diren zenbatekoek zuzenbide publikoko diru-sarrera izaera izango dutenez, betearazpen-bidetik exiji daitezke.

**8. Prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.**

Eibarko Udaleko Hirigintza sailak bideratuko du prozedura.

Ebazpena ematerakoan, aurkeztu diren eskaeren eta proiektuen inguruan sail horretako lege-aholkulariak eta udal teknikariek egindako txostenek diotena hartuko da oinarritzat. Diru-laguntza deitzen duen organoak izendatutako teknikaria izango da instruktorea, hau da, diru-laguntza sustatu duen sailekoa.

Diru-laguntzaren inguruko ebazpena ematea Eibarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Onuradunek 15 eguneko epea izango dute diru-laguntzari ezetza emateko edo ukatzeko; epe hori, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatuko da. Epe horretan ez badute eman berariazko ukorik, onuradunek diru-laguntza onartu egin dutela joko da.

#### **9. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.**

Diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 30 artekoa izango da (egun hori barne). Eskaera horiek deia egiten duen organoari zuzendu behar zaizkio eta onuradunak berak edo haren ordezkariak sinatu behar ditu; eskaerarekin batera, eskatutako dokumentazio guztia ekarrita.

Eskaerak, bulego orduetan, auzoko bulegoan entregatuko dira.

#### **10. Ebazteko eta jakinarazteko epea.**

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da eskaera egiten den egunetik zenbatuta.

#### **11. Emandako diru-laguntzen publizitatea.**

Diru-laguntzen Datu-Base Nazionala izango da emandako diru-laguntzen publizitatea egiteko sistema nazionala.

#### **12. Diru-laguntza eskaerarekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak.**

Diru-laguntzen izapidetza Jabe Erkidegoaren izenean diharduenak egin behar du.

Diru-laguntza eskuratzeko eskaerak agiri hauek ekarri behar ditu:

- a) Txonta auzoko bizitegi-eraikinen birgaitze eraginkorrerako jabe-erkidegoei zuzendutako diru-laguntzak eskatzeko orria behar bezala beteta, auzo bulegoan eta Udalaren webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) dagoen ereduaren arabera.
- b) Jabe Erkidegoaren Identifikazio Fiskalaren zenbakiaren (IFK) fotokopia.
- c) Jabe Erkidegoko edo Komunitateko Presidenteak luzatutako dokumentua, edo, hala bada kasua, Komunitatearen edo erkidegoaren Idazkariak edo Administratzaileak egindakoa. Agiri horretan, Jabe Erkidegoko ordezkari legez arituko den pertsonaren izendapena eta diruz laguntzea eskatu den obra horiek egiteko Erkidegoak edo Komunitateak eman duen baietza jasoko da (auzo bulegoan eta udal web orrian, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus), eskuragarri).
- d) Diruz laguntzea eskatu den higieztina osatzen duten elementu guztien erregistro-inskripzioen ohar soilaren fotokopia.
- e) Eraikineko elementu bakoitzak beren partaidetza kuotaren arabera ordaindu behar duen zenbatekoa adierazten duen taula.
- f) Jabe Erkidegoak edo Komunitateak duen bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzeko agiria, diru-laguntza hor ordaintzeko. Ondoko dokumentu hauetatik edozein da balioduna: kontu-laburpenaren fotokopia; aurrezki-libretaren fotokopia; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo "Titularra-kontua" izeneko orria (auzo

bulegoan eta udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus), eskuragarri) behar bezala beteta eta banketxeak emandako zigiluarekin.

- g) Ziurtagiriak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela esaten.
- h) Eraikinaren egungo egoeraren Ikuskapen Teknikoaren txostena eta Eraginkortasun Energetikoaren ziurtagiria.
- i) Lan-sariak, eraikinaren Ikuskapen Teknikoa eta Egikaritze Proiektua idazteagatik eta obren zuzendaritza teknikoari dagozkionak. Etxebizitzak monitorizatzeko kostuen aurrekontuaren fotokopia.
- j) Memoria, eraikinean egingo diren jarduketak zehatz deskribatuta.
- k) Egingo diren jarduketa guztien egikaritze-proiektuaren aurrekontuaren fotokopia, obrak egin ondoren eraikinarentzako aurreikusitako Eraginkortasun Energetikoaren ziurtagiria barne.
- l) Beste erakunde batzuei diru-laguntzak eskatu bazaizkie, erakunde horien aurrean egindako diru-laguntza eskaeren zerrenda, edo, hala balegoke, jaso diren laguntzena, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua zehaztuta.

### **13. Akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.**

Espedientea bideratu duen organoari dagokio egiaztatzea, eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintza eta betebehar guztiak bete egiten dituela eta honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela; organo horrek agindu dezake zuzenketa egitea DLOren 23.5 artikulua araberan. Hamar eguneko epe luzaezin gehienezkoan eskatutako dokumentazioa ekarri ez, edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez dituztenei, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira.

### **14. Diru-laguntzen zenbatekoak.**

Izaera orokorreko diru-laguntzek indarreko udal aurrekontuan egokitutako partida izango dute muga.

Diruz lagunduko diren egitekoak hauek izango dira:

- a) Eraikinaren Azterketa Teknikoa idaztea (EAT)

Esparru horretako eraikinen EATak egiteko kostuaren % 60 lagunduko da diruz.

- b) Etxebizitzak monitorizatzeko eta horren jarraipena egiteko.

Egindako ekintzen eta obren eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko, diru-laguntza ematen den unetik bertatik (obrak egiten hasi aurretik) monitorizatu egin behar da etxebizitzaren % 10, eta obrak amaitu ondoren ere, beste urte bitan horrela jarraitu. Sistemak ustiatzen eta martxan dauden bitartean, datuak neurtzeko behar diren ekipoak Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laboratorioaren Termika Arloko zerbitzu teknikoek adierazitakoak izango dira. Ekipoak, behin

instalatuta, ekipatuta egon behar dira datu-irakurketa Eraikuntzaren Kalitatearen Kontrolerako laborategira bidaltzeko, hark datuok tratatu eta ustia ditzan.

Etxebizitza horiek monitorizatzeko egin behar den instalazioak eta horren jarraipenak izango duen kostuaren % 100 lagunduko da diruz.

c) Proiektuak idazteko eta obra-zuzendaritzarako.

Agiriak idazteko lan-sariek eta obra-zuzendaritzaren lan-sariek izango duten kostuaren % 60 lagunduko da diruz, zergak barne. Diru-laguntza horrek muga hau izango du: diru-laguntzaren xede den eraikinak dituen etxebizitza kopurua bider 1000 euro ateratzen den zenbatekoa.

Proiektua Kapitulutan eta Partidetan egituratu behar da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek emango duten ereduari jarraikiz.

d) Obrak egiteko:

Igogailua edo/eta arrapala jartzea: Igogailuak edo/eta arrapalak jartzeko exekuzio-lanen kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak barne), itzuli beharrik ez daukana. Jabe Erkidegoko bakoitzeko, gehienez ere, 72.000 euro.

Eraikinaren inguratzaile termikoaren eta haren instalazioen portaera energetikoa hobetzea: kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak barne) lagunduko da diruz. Etxebizitza bakoitzeko, gehienez ere, 7.500 euro. Hona hemen banaketa:

- Eraikinaren Kalifikazio Energetikoa letra batean hobetzen duten jarduketan kasuan —indarraldiko eraginkortasun energetikoko egiaztatze-prozeduraren arabera, CO<sub>2</sub> igorpenean neurtuta— kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak barne) lagunduko da diruz. Etxebizitza bakoitzeko, gehienez ere, 4.000 euro.
- Eraikinaren Kalifikazio Energetikoa letra bitan hobetzen duten jarduketan kasuan —indarraldiko eraginkortasun energetikoko egiaztatze-prozeduraren arabera, CO<sub>2</sub> igorpenean neurtuta— kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak barne) lagunduko da diruz. Etxebizitza bakoitzeko, gehienez ere, 6.000 euro.
- Aurreko esku-hartze bi horietako batek bere baitan energia primarioaren kontsumoa murrizteko jarduketak egiten baditu, kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak barne) lagunduko da diruz, eta aurreko gehieneko zenbateko horri 1.500 euro/etxebizitzako gehituko zaizkio. Hauek dira diruz lagundutako jarduketak:
  - ◆ Etxeetan dauden galdarak kendu eta errendimendu handiko gas naturaleko galdarak jarri.
  - ◆ Etxeko ur beroa sortzeko sistema bat jarri eguzki-panel termikoen bidez.



- ◆ Berokuntza-sistema eta etxeko ur bero zentralizatuak jarri biomasa-galdararekin, edo energia berriztagarriko beste sistema batzuekin, etxe bakoitzak kontsumitzen duena kontrolatzeko banaketa-sistemarekin.

### **15. Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin.**

Oinarri hauetan xedatzen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburuan edo xedean bat datozen beste administrazio publiko edo pribatu batzuenarekin.

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira Udalak igogailuak jartzeko eta fatxadak berriztatzeko ematen dituen diru-laguntzekin, eta Txonta auzoko eraikinak birgaitzeko Udalak berak etxejabe bakoitzarentzako egin duen deialdiko diru-laguntzekin.

Bateragarriak dira baita eskubide titular bakoitzari legezkiokkeen laguntza hauekin:

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako kontseilariak emandako 2006ko abenduaren 29ko Aginduak (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA) eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrei ematen dizkien laguntzak edo agindu hura ordeztzen duen araudiak dakartzanak, gehienez ere, jarduketan kostu guztia osatu arte.
- Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) dauden eraikinen birgaitze energetikoko jarduketak egiteko laguntza-programaren deialdiko oinarrietan dauden diru-laguntzak, gehienez ere, eraginkortasun energetikoko jarduketan kostua osatu arte.
- I+G+B programetatik edo Europako programa batzuetatik eskura daitezkeen beste laguntza batzuk.

Ez da bateragarria izango Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jabe-erkidegoen alde eman ditzakeen laguntzekin.

### **16. Ordainketak:**

Diru-laguntza orokorren ordainketa prozedura hauen arabera egingo da:

- a) Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 15, honako dokumentu hau aurkeztu ondoren ordainduko da: *Txonta auzoko bizitegi-eraikinen birgaitze eraginkorrerako jabe-erkidegoei zuzendutako diru-laguntza: ordaintzeko eskaera* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri). Horrekin batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:
  - EAT egiteagatik, eta oinarritzko proiektua eta obra-egikaritzakoa idazteagatik izandako lan-sarien zenbatekora iritsiko diren fakturen fotokopia. Ez da ordainduko justifikatutako zenbatekotik gorako zenbatekorik.

- Frogagiria, Jabetza Erregistroan higiezinako etxebizitza guztien jabariaren mugatze-xedatzailearen erregistro-idazpenarena. (frogagiri guztiak aurkeztu ezean, 18. atalak ezarritako eran jokatuko da)
- b) Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20, honako dokumentu hau aurkeztu ondoren ordainduko da: *Txonta auzoko bizitegi-eraikinen birgaitze eraginkorrerako jabe-erkidegoei zuzendutako diru-laguntza: ordaintzeko eskaera* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri). Horrekin batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:
- Obrak egiteko ardura duen edo duten enpresarekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia, diru-laguntzaren xede diren obra guztiak egingo direla bermatzen dutenak.
  - Obra-hasieraren Aktaren kopia, Jabe Erkidegoko lehendakariak, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta obraren zuzendaritza teknikoak edo fakultatiboak sinatutakoa.
- c) Hirugarren ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 40, honako dokumentu hau aurkeztu ondoren ordainduko da: *Txonta auzoko bizitegi-eraikinen birgaitze eraginkorrerako jabe-erkidegoei zuzendutako diru-laguntza: ordaintzeko eskaera* orria aurkeztu ondoren ordainduko da (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri). Horrekin batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:
- Fakturen kopia, obra-exekuzioaren zenbatekoa % 50ean gutxienez beteko dutenak.
  - Obraren zuzendaritza teknikoak egindako obra-ziurtagiria.
- d) Laugarren ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 15, honako dokumentu hau aurkeztu ondoren ordainduko da: *Txonta auzoko bizitegi-eraikinen birgaitze eraginkorrerako jabe-erkidegoei zuzendutako diru-laguntza: ordaintzeko eskaera* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri). Horrekin batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:
- Fakturen kopia, obra-exekuzioaren zenbatekoa % 50ean gutxienez beteko dutenak.
  - Obraren zuzendaritza teknikoak egindako obra-ziurtagiria.
- e) Gainontzeko zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, ondorengo artikulua honetan adieraziko den eran, alegia.

Ez da ordainduko justifikatutako zenbatekotik gorako zenbatekorik, epe bakoitzean.

### **17. Pertsona onuradunek duten epea eta modua, diru-laguntza emateko helburua bete dutela justifikatzeko eta jasotako funtsak zertan erabili dituzten azaltzeko.**

Obra-lizentzia eman dela jakinarazi ondoren, urte 1ekoa izango da obrak egiteko gehieneko epea.

Onuradunek, diru-laguntza emateko helburua bete dutela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duten justifikatzeko, hile biko epea dute aurreko paragrafo horretan adierazitako epemugatik zenbatuta; hala ere, epemuga horrek inondik inora ere ezingo du gainditu 2020ko azaroaren 30a.

Hala ere, laguntza eskatu dutenei egozterik ez dagoen arrazoiren bat dagoenean, obraren hasieran edo egikaritzean atzerapenen balego, ezarritako epemuga amaitu ondoren, epea luzatzeko eskaera egin dezakete.

Justifikatzeko modua justifikazio-kontu bidez egingo da. Agiri hauek ekarri behar dira:

- Honako orri hau behar bezala beteta: *Txonta auzoko bizitegi-eraikinen birgaitze eraginkorrerako jabe-erkidegoei zuzendutako diru-laguntza: justifikazioa* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri).
- Obra-amaierako ziurtagiria, obraren zuzendaritza teknikoak izenpetutakoa.
- Ziurtagiria, EATn identifikatutako patologia eta kalteak zuzendu izanari buruzkoa.
- Amaitutako obraren Eraginkortasun Energetikoko ziurtagiria.
- Obra-egikaritzaren fakturen kopia, aurretik aurkeztu ez direnak.
- Erkidegoaren lehendakari-kargua edo, hala bada kasua, komunitateko idazkaritza edo administrazioa ordezkatzeko duen emandako agiria; bertan jasoko da diru-laguntzaren onuradunak egindako ordaintzen zenbatekoa, eta birgaitze-obra osoagatik azkenean ordaintzea dagokion kopurua.
- Egindako obren argazkiak.
- Beste erakunde batzuen aurrean diru-laguntzak eskatu badira, Erkidegoko edo Komunitateko presidentek edo, hala bada kasua, komunitateko Idazkariak edo Administratzaileak emandako agiria, non haxe ziurtatuko den: beste erakunde batzuei egindako diru-laguntza eskaeren zerrenda, edo, hala bada, jaso diren laguntzena, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua zehaztuta.

### **18. Diru-laguntzen zenbatekoa itzultzea, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.**

Jabetza Erregistroan higiezinako etxebizitza baten edo etxebizitza batzuen jabariaren mugatze-xedatzailearen erregistro-idazpenaren frogagiriak ekarri ezean, emandako diru-laguntza murriztu egingo da, halako moldez non jabetza horizontaleko higiezin osoko banaketan etxebizitza horiei esleitzen zaien partaidetza-kuotaren pareko portzentajea murriztuko zaien.

Diru-laguntzak emateko ezarrita zeuden baldintzetatik edozein DLOaren 37. artikulua ezarritako moduan betetzeke uzteak edo baldintza sasoz kanpo bete izateak —lortu nahi den helburu publikoa lortzeko baldintza guztiak betetzea edo epea betetzea erabakigarria denean— berekin dakar eskubide osoa erabat galtzea eta, hala balitz kasua, jasotako dirua itzultzea.

Diru-laguntza kobratu ondoren, Administrazioari zerbitzuen aldetik egiaztapen bat edo finantza-kontrol bat egin eta egindako gastu guztiak edo gastuen zati bat ez dela ordaindu agerian geratuko balitz, hartzekodunen aldetik galdagarriak diren gastuak, dirua itzultzeko agindua emango da egokitasunaren printzipioa erabilita; hartara, ordaindu gabe geratu diren gastuen proportzio berean hartuko da itzulgarritzat emandako diru-laguntza.

#### **19. Administrazioari arau-haustea eta zehapenak diru-laguntzen alorrean. Zehapen- edo zigor-prozedura.**

Gai horretan, EIBARKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZETARAKO ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUA ezarritakoari egingo zaio kasu. Eibarko Udala

#### **20. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.**

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea dago Ebazpena eman zuen organoari zuzendutako berrazterketa-errekurtsoa sartzeko, edo, bestela, hile biko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sar daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako Epaitegian (Atotxako Justizia Auzitegia, Teresa de Calcuta plaza 1).

#### **21. Datu pertsonalen babesa.**

Diru-laguntza eskaera aurkeztean, eskaera egiten duen erakundeak deklaratu du, deialdian ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarri hauek diotena goitik behera onartzen duela. Halaber, adierazten du bere baimenaz biltzen direla eskaeran jasotako datu pertsonalak, eta onartzen duela datu horiek tratamendu automatizatua izatea eta sartzeari behar den baimena duten Eibarko Udalaren hainbat fitxategitan; eta onartzen duela datu horiek bakarrik erabiltzea Udalaren gestioetarako. Datuak laga edo komunika dakizkieke beste Administrazio Publiko batzuei edo hirugarrenen datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen kasuetan.